

## GENEROA ETA BERTSOLARITZA

*Ainhoa Agirreazaldeggi Rekondo*

Mahai-ingururako edukia

2009-03-03, Zarautz.

Bilgune Feministak antolatutako “Emakume astea”ren barruan

### **Mahai-ingurua eta bertso-saio esperimentalta.**

**Bertsolariak:** Uxue Alberdi Estibaritz, Unai Muñoa Amundarain eta Ainhoa Agirreazaldeggi Rekondo.

**Moderatzaile eta gai-emaile:** Egoitz Aizpuru Sanz.

(Bertsolariok aurrez adostu genuen Egoitzekin, zertaz hitz egingo genuen. Lau galdera nagusi adostu genituen, idatzizko bertsioan ageri direnak. Uxue egunean bertan gaixotu egin zen, eta ezin izan zuen joan. Galdera berberak erantzun genituen Unai eta biok. Hitzaldiak eta mahai-ingurua luzatu egin ziren, eta bertso-saio esperimentalta hurrengo batean antolatzeko ardura hartu genuen).

### **Hasi aurreko oharrak:**

- a. Ez naiz gaian aditua. Feminismoari dagokionez, horretan lan handia egin eta formazio zabala jaso duzuen hainbat lagun zaudete hemen. Ez egin kasu terminoei, mesedez. Generoa, sexua, emakumetasuna, feminismoa, matxismoa, sexismoa, berdintasuna, askatasuna, emakumei egotzen zaizkien rolak, ezaugarri femenino eta maskulinoak, kultura, gizartea, heziketa... termino/kontzeptu labainkorrak dira, eta ni ez naiz aditua. Batzuetan “inkonszienteak” failatuko dit. Geratu esentziarekin, mesedez, intentzioarekin.
- b. Inondik inora ez dut uste, hemen aipatuko ditudan hainbat egoeren errudun gizonetako bertsolariak direnik. Are gehiago, ez dut uste errudunik dagoenik, ez gizon, ez emakume, bertsolaritza munduan esan nahi dut. Orain ere analfabetoak gara gai honetan, eta orain gutxi arte are analfabetoagoak. Gai honetaz, ez gizonetako ez emakumeetako ez dugu orain gutxi arte gogoetarik egin. Beraz, errudunik ez, kulpak kanpora. Bestela ere nahikoa harri baditugu bai zuek eta bai guk! Noizbait gizonen aipamenei bat egiten badut, ez ulertu zuen aurkako aipamena denik, inondik inora. Gure/nire ibilbidea ulertzen laguntzeko aipagarri egokia iruditu zaidalako baino ez dut botako halako aipamenei. Geratu esentziarekin, mesedez, intentzio onarekin. Eta bide batez esanda, orain gaiaz zertxobait ikasten ari naizen honetan, uste dut ardura nagusia neure buruarena dela, inola ere ez besteena, izan gizon nahiz emakume. Badaezpada ere, diot... Izan ere, gai honek tentsio handiak sortzen ditu gizon/emakumeen artean, berehala jartzen gara defentsiban... Esperientziatik diot. Baita bertsolaritzan ere, oso jende zibilizatuaren itxura izan arren... Horixe, itxura...
- c. Emakume batek, ez ditu, emakume guztiak ordezkatzeko. Batzuetan “ni” esango dut, baina “ni emakumea” esan nahiko dut, beste ni guztiak ez dira gaurko mahai-inguruan gai. Beste batzuetan “gu, emakumeok...” bezalako terminoak erabiliko ditut, edo arriskutsuagoak, “ezaugarri femeninoak” esatera iritsi naiteke... Eta askotan ez gara emakume guztiak identifikatuta sentituko. Nik, ustez, gutxienez beste emakume batzuekin konpartitutako sententziak azalduko ditut, baina noski, ez dira, inondik inora, emakume guztien identifikatzaile izango, eta batzuetan gizon –arraro- batzuk ere identifikatuta sentituko dira.
- d. Ondorioz... Ez dut esango hanka sartzen badut barkatu, baizik, hanka askotan sartuko dut, eta aldeztu aurretik, barkatu. Ikaste prozesuan saio bat gehiago izango da gaurkoa.

## 1. Noiz eta nola hurbildu zineten generoaren gaira? Zer eragin izan du bertsolaritzak, hurbiltze horretan?

-Lehen aldiz, 25 urterekin, 2003an. Bertso-munduko emakume talde baten asteburu-pasa izan zen abiapuntua.

·Ordura arte, “ezberdintasunik” ez nuen sumatzen.

·Ordura arte, ikuspegi kolektiborik ez zegoen. Neuzkan kezka, gerora asko emakume izatearen baitan kokatu ditudanak, nireak, Ainhoarenak zirela uste nuen. Horrek drama handitzen zuen!

·Virginia Imazek esana da: “Zerbait badago nigan aldatzerik ez dagoena, eta ni ikuste hutsarekin nire aurrean dagoen edonork identifikatzen duena: hori nire emakumetasuna da. Baloreak moldatuz, osatuz joango naiz, gauza bera ideologiek, izaerarekin, gorpuzkerarekin... Baina beti izango naiz emakume, eta nire aurrean daudenek ere emakume gisa ikusiko naute”. Horretaz oso berandu ohartu nintzen, berandu eman nion garrantzia esplizitua...

·Lehen muga 25 urtetan jartzeak esan nahi du, ordura arte, 9 urtetatik hasita bertso- eskolan pasatako urteetan inoiz ez zela emakume izatearen eraginaz, ezberdintasunez, oztopoez, ondorioez, abantailez, aukerez... hitz egiten, ez behintzat bertsolari figurari, jende aurrekotatunari eta sortzailetan dagokionez. Aitzitik, kontrako zerbait gertatzen zen: gaia azaletik aipatzen zen, eta horrek, barruan zegoena, gaiaren muina, estaltzen lagundu zuen. Bederatzi urtetatik 13 urtera arte bertso- eskolan ni nintzen neska bakarra, eta ez dut gogoratzen inoiz inork horri buruzko aipamenik egin zuenik. 13 urterekin Arrasateko bertso- eskolara joan nintzen eta han... 5 neska ginen! Eta horixe izan zen aurrerantzean gai bakarra: kantitatea. Noski, ez gure irakasleek, ez gure gurasoek, ez zuten gaiaren kontzientziarik (gerora nik ere ez nuen izango irakasle hasi nintzenean) eta, gizonen inguratutako mundu batean, gu bostok islatxo bat ginen, baina gure irakasleak, haien irakasleak, bertsolari ezagun eta ez hain ezagun guztiak, gai-jartzaileak... gizonetakoak ziren, jartzen zizkiguten gaiak, gizonen jartzen zitzaizkienak ziren, “kantatu fuerte eta tente, Lizasok bezala!” esaten ziguten, arrazoi potoloak kantatzeko esaten ziguten, dudarik ez agertzeko, binaka teman ari ginenean albokoa garaitzeko...

·Orduan, zer gertatu zen nik 25 urte nituenean? Ordura arte nireak bakarrik zirela uste nuen kezka, eta nireak esatean neure buruari buruzkoak esan nahi dut, pixkanaka beste emakume batzuekin konpartitzen hasi, eta antzeko kezka genituela ikusten hasi ginen. Aho txikiarekin, badaezpada ere! Bagenekien zein ziren sintomak, baina ez genekien zein zen gaixotasuna... Ohartzen ginen bertsolari izateko, ondo “funtzionatzeko” behar ziren hainbat ezaugarritan herren egiten genuela... Geroago aztertuko ditugu zer diren “funtzionatzeko” hain egokiak ziren horiek... Kontua da, batekin hitz egin eta bestearekin hitz egin, asteburu-pasa bat antolatu genuela hemendik gertu, Axkixun... Noski, bertsolari artean egon behar zuen bezala, tartean pala-partidu bat ere izan genuen, gure bertsolaritasuna inork zalantzan jarri ez zezan... Ostiral iluntzean elkartu ginen Zumaian, eta ia larunbat goizera arte hizketan aritu ginen, behingoagatik... Gure gauzez! Hainbat gai bertsolaritzakoak ziren, eta beste hainbat geureak... Baina ordura arte, “geure” gauza horiei buruz ezin genuen bertso-munduko taldeetan hitz egin... Horietan, beti, politika, Bertsozale Elkarte, bertsolaritzak, kultura, euskalgintza, futbola eta pilota, herriko kontuak... Ziren mintzagai. Beti besteak, kanpoko gauzak, guri “inporta ez” zitzaizkigunak, barrua benetan pertsonari mugitzen ez dizkietenak gai asko, esan nahi dut. Orduan, halako giro intimu hartan -9 edo 10 lagun ginen. Emakume bertsolari denak, izen eta abizen, gonbidatuta zeuden, baita XDZko langileak, bertsozale sutsuren bat, gai-jartzailearen bat... ere-, bakoitza bere buruz hizketan hasi zen, eta bati gertatzen zitzaizkion gauzak, sentitzeko modua batez ere, oso konpartitua izaten zen. Norberaren bizitzako kezka, ezinak, zalantza, beldurrak, galderak... bertsolaritzan ere bagenituela ikusi genituen, ginenaren ispilu erraldoi bat zela bertsolaritzak... Baina zer esan dut: kezka, ezinak, zalantza, beldurrak, galderak... horiek ez ziren bertsolari baten ezaugarriak! Eta gure galdera, barru-barruan zegoena, eta nolabait taldera atera zena, garbia zen: balio al dut/dugu bertsolari izateko? Bertsolaria subjektu soziala zen, arrazoikera sendokoa, determinatua, ziurra, erantzun azkarrekoa... Eta gutako asko -ez denak-

erantzunak zazpi aldiz pentsatzen genituenak ginen, noranahi joan eta galdetzea gustukoago genuenak erantzutea baino, oholtzara irten eta ahots ahula genuen...

Hori izan zen gure maitasun istorioaren hasiera. Ze maitasun istorio? Bakoitzak bere burua ezagutu, onartu, maitatu eta hortik bide bat egitearena. Oraindik zenbat ikasiko genuen hurrengo hamar urtetan...

Oharra: gu, noski, gure adineko mutilen lagunak, ooooso lagunak ginen, eta haiak gureak ere bai, eta noski, berehala hasi ziren galdetzen ea zer arraiotarako bildu behar genuen guk elkarrekin, ea ezin genuen beraiek zeudenean hitz egin, “normal”... Eta ez zen hor gelditu kontua. Amenazuak ere izan genituen, mutilak ere batzen hasiko zirela, alegia!. Ai, batzen hasi balira orduan, bide zati bat eginda edukiko lukete...

Geroago, 10 urte geroago jakingo nuen, feminismoa sendatzen ez den gaixotasuna dela...

-Bigarren muga, Maialenen Oreretako hitzaldia (2007an). Hitzaldi horretara ezin izan nuen joan, baina berehala eskatu nuen grabazioa. Inoiz baino esplizituago eta hobeto antolatua ageri dira ordura arte modu desordenatuan eta ez hain garbian gure buruetan ibilitako gaiak, eta gai berriak. Hor ikusten da berak gogoeta egin duela gai horretaz, baina gogoeta hori ez dela oso zabaldua. Mutil gehienek ez dute ezta ideiarik ere, Iturriagak hilabete batzuk geroago Eibarren aitortuko duen bezala. Gu beraiek “ongi” tratatzen gintuztenez, ez zuten imajinatu ere egiten gure egoera bakartia zein izan zitekeen. Eta guk, emakumeok “biktima” paperean hasterik nahi ez genuenez, ez genien sentsazio asko eta askori buruz ezer esaten.

-Hirugarren muga. Feminismoa. Bertsolaritzak egin nau feminista. Berandu, baina azkenean... Donostian Udako Ikastaroetan antolatutako “Las mujeres y el humor en las artes escénicas” ikastaroan, hainbat emakume sortzailek eta eragilek adierazi zuten feminismoa gure mundu ikuskeran egotearen garrantzia, eta horretan arreta jarri ezean, beti posizio ahulean egongo ginela. Sutilak diren hainbat eta hainbat adibide feminismotik berrinterpretatzen hasi nintzen, eta neure 15 urtetako ibilbideko hainbat gako ezagutu nituen. Ordura arte beldurra izan nion neure burua feministatzat agertzeari, hitz horrek kalanbre handia ematen zuen inguruan, eta nik ez nuen ingurukoek –gure kasuan, mutilek- baztertzetik nahi, hain zuzen ere, beraien babes behar nuen, eta feminismoak babes hori ukatuko zidala sentitzen nuen inkonozienteki. Nik berdintasuna nahi nuen, ez nuen biktima gisa azaldu nahi. Eta feminista nintzela esatean, biktima nintzela ulertuko zuten beldur nintzen.

2008ko udan argi ikusi nuen, sendatzeko modu bakarra, nire bizitza feminismotik berrinterpretatzea zela, emakumeon balio positiboak edo nire baliorik emeenak zainduz bakarrik eraiki nezakeela nire pertsona, eta pertsonatik bakarrik izango nintzela ekarpenen bat egiteko moduko bertsolari, gozatu eta gozaraziko duen bertsolari, izatekotan ere.

## **2. Martxoaren 8ko ekitaldi bat izanik, zergatik landu generoa eta bertsolaritza eta ez emakumea eta bertsolaritza?**

-Kokapen bat egin beharra dago. Nire belaunaldiko bertsolari emakumeak, hasieran, 15-16 urterekin, ez genuen oso ondo ulertzen zergatik deitzen gintuzten emakumeak bakarrik martxoaren 8ko saioetara. Guk BERDINAK izan nahi genuen, EZ ASKEAK. Ondorioz, bi aldiz baztertzea zela iruditzen zitzaigun emakume ginelako deitzen zigutelako, eta emakumeei soilik kantatzeko (entzuleak emakume). Ez genuen ezetz ematen, baina ez ginen batere konbentziturata joaten martxoaren 8aren inguruko saioetara.

-Gaur egun, nik behintzat gauditua dut muga hori, badakit garrantzitsuak direla egun horretako emakumez osatutako saioak, ez entzuleentzako bakarrik, baita bertsolariontzako ere, elkarrekin kantatzeko, beste bertsokera bat lantzeko... Orain “gustora” joaten gara, baliatu egiten ditugu egoerak, guk nahi duguna egiteko. Emanaldi bereziak, eta abar.

-Agian ezberdindu beharko genituzke emakumearen zapalkuntza (eta hori salatzen duen eguna da berez martxoaren 8a) eta genero askapena (oraingoz egunik ez duena). Bi gai horiek berez ez dira gai bera, eta agian ez genituzke nahastu behar. Hala ere, konstruktiboa iruditu zaigu, gure

belaunaldia bertsolaritzan, emakumearen zapalkuntzan baino gehiago generoaren, rolen sozializazioaren mugen pean dagoelako, gizonak eta emakumeak biltzea gai honen inguruan hitz egiteko. Bereizitako gogoetak ere beharko dira aurrerantzean, baina amildegia handia denez, elkarrekin gogoetan hasia ere garrantzitsua da. Horregatik batu gara gaurkorako Uxue, Unai, Egoitz eta laurok.

-Azken aipamen bat, ikuspegi kolektibotik. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak ere hasi da gaia lantzen. Generoa bera, rol sozialak, honek guztiak harremanetan eta lan-ereduetan duen eragina... aztertzen hasi da. Aipagarria da kultur elkarte batek gai hau lantzea erabaki izana, eta gai garrantzitsu guztiak bezalaxe, zuzendaritzak bultzatutako gogoeta izatea, ez gai honekiko interesa duten pertsona batzuen ahalegina bakarrik. Emakume eta gizon, guztiok elkarrekin eta kopuru beretan (proportzio desberdinetan) hasi gara gaia lantzen. Momentuz gizonen jarrera, gai hauetaz gogoeta egin dugunon iritzia ulertzeko ahalegin itzela da. Beraien gogoeta propiorik apenas dagoen arren –Unai Muñoa izango da salbuespenetako bat, eta horregatik dago gaur hemen gurekin-, baina elkarrekin ikasi, gaiak kontzientzia hartu eta Bertsozale Elkarteko hainbat esparrutan dituen ondorioak eta hartu beharreko neurriak hartzea da guztion helburua. Aurrerapausu handia.

### **3. Noiz sentitu izan zarete deseroso bertso munduan, generoari dagokionez? Zergatien gaineko gogoetarik egin al duzue?**

Hasieran esan bezala, gaiarekiko kontzientzia oso berantiarra izan nuen. Beranduko kontzientzia dela diot, 25 urterako, pertsona, hainbat arlotan bere bizitzako zutabeek hainbat gogoeta egin baitago, eta orain begiratuta, susmagarria da oso nigan ia egirik absolutuenaz denaz, emakumetasunaz, gogoetarik egin ez izana adin horretara arte. Are gehiago, hainbat eta hainbat alditan, emakumetasun horren arrastoak (arrastoak bakarrik balira!) estaltzen, garbitzen saiatu izana. Beraz, kontzientzia apur bat banuen... Emakume nintzenaren kontzientzia, horrek bertsotan funtzionatzen ez zuenaren kontzientzia... Eta, ondorioz, gizonago izan nahiaren kontzientzia...!!! Hori bai kontzientzia!

-**Bertsolari jarrean.** Ez nintzen txistoso, hiztun azkarra (Lizasoren eta Irazuren eredutik urruti). Ez lider soziala izan nahi zuena. Ez estrategikoa harremanetan. Eszenara igotzea, protagonista izatea, guztiei gauza garrantzitsuez hitz egitea... ez ziren ez nire dohai, ez nire balio. Baina bertsolaritzakoak bai! Orduan, nik zer egiten nuen bertsolaritzan?

Azterketa feminista hainbatetan ikus daiteke, egun gure gizartean gizonen eta emakumeen “ezaugarriak” zein diren adierazten dituzten sailkapenak. Horietako batzuek aipatuko ditut hemen, eta neure gogoetak egin. Ondoren ikusiko dugu bertsotan eta bertsolaritzan zer eragin izan dezaketen ezaugarriok.

Ezaugarri hauek guztiak ez dira nik asmatuak, ikerketa edo gogoeta feministetan irakurriak dira. Ezkerreko edo eskubiko ezaugarri gehiago ditugun, horren arabera esan genezake “estilo maskulinoa” edo “estilo femeninoa” dugun.

(Binomioak berez direla arriskutsuak jakinda osatu dut taula. Ez naiz binomioen zale neurez, absolutuegiak dira, erdibiderako biderik ez dute maiz... Baina ze onak diren bietatik ezkerrekoa positiboa eta eskubikoa negatiboa direla argi uzteko... Ikusi bestela: ona/txarra, txuria/beltza, jaio/hil, ardoa/ura, gizona/emakumea...)

<b>GIZONAK</b>	<b>EMAKUMEAK</b>
<b>Plurala</b>	<b>Singularra</b>
<p>Pluralean hitz egiten da gizonaz, inoiz ez da esaten “gizona ausarta da”, “gizonak ausartak dira” baizik. Emakumeez, ordea, singularrean hitz egiten da maiz: “emakumea emozionala da”, gutxiagotan esaten da “emakumeak emozionalak dira”. Honek pertsona gisa anulatu egiten gaitu emakumeok, eta emakume-eredu bat baino gehiago egon daitekeenik ukatu egiten du maiz. Ondorioztatzen dut, rolei lotuago gaudela emakumeok, dagoen emakume-eredu bakarraren arabera jokatu behar dugulako.</p>	
<b>Zuzenean harira</b>	<b>Estilo emozionala</b>
<p>Gizonezkoek zuzenean “gaira” jo nahi izaten dute (ez gaizki ulertu!), hau da, edozein dela ere gaia, gai horretan zentratzen dira. Emakumeok gaiak kontestualizatzeko joera, premia dugu, eta beraz, ezin da gaiak hitz egin, kontestuan kokatu gabe, emozioak kontuan hartu gabe... Nolabait esateko, gizonak munduaren gaineko ikuspegi objektiboagoa dute, eta emakumeok subjektiboagoa.</p>	
<b>Gauzei beren izenez deitu</b>	<b>Eufemismoa nahiago</b>
<p>Emakumeok eufemismoekin, atzizki txikigarriekin... hitz egiteko joera omen dugu. Lehenengoarekin ez dakit oso ados nagoen, gizonazkoen munduan –batez ere laborean. ere asko baitira eufemismoak, baina badirudi emakumea politikoki zuzenagoa izaten saiatzen dela, batez ere eremu pribatuan. Bigarreneko adibideak asko dira: Amak alabari: “non dituzu kulerotxoak?” / Amak semeari: “non daude zure kantzontziloak (ez kantzontzilotxoak). Beraz, eufemismoak eta atzizki txikigarriak, emakumeok, emakume artean erabiltzen ditugula maiz esan genezake agian... Baita gizonak ere (aitak alabari ere esango lioke “kulerotxoak”), emakumeekin.</p>	
<b>Baieztatu</b>	<b>Galdetu</b>
<p>Irakurri dut, gizon bat lanpostu berri batera doanean, edozein dela ere bere postua, baieztapen bat botatzen duela. Emakumeak, alderantziz, galdera egiten omen du. Puntu honekin lotura zuzena dute “bertso bukaerek”. Bukaeran arrazoi sendoa jarri behar zela irakatsi ziguten / irakatsi genuen bertso eskoletan. Galderek arrakasta izatea ez da hain erraza, oso ondo egin behar dira, edo oso espresio iradokitzaila izan behar du amaiera batek, baieztapen izan gabe arrakasta izan dezan, orain arteko bertsolaritzan.</p>	
<b>Pentsamendu abstrakturako gaitasuna</b>	<b>Hizketarako gaitasuna</b>
<p>Gizonezkoak asko garatu duten gaitasun bat, pentsamendu abstrakturako gaitasuna da, emakumeak ez dira gaitasun hori garatzera bultzatu. Hortik etor daiteke, Xabier Odriozolak aipatzen duen rol-sozialen ondorioz sortutako pentsamendua, “emakumea 2. mailakoa dela maila intelektualean” pentsatu izan dela maiz, orain gutxi arte inteligentzia mota ezberdinak ere ez baitziren bereizten, gainera. Alderantziz, emakumeok asko eta gizonak gutxi garatu dugun gaitasuna da hizketarakoa. Bi hauek uztartuz edo aurkajarritz, erraz atera daitezke “emakumeak asko hitz egiten dute baina gauza garrantzitsurik, pentsamendu sakonik ez dute esaten” bezalakoak...</p>	
<b>Motibo estrategikoengatik komunikatu</b>	<b>Konfiantza eraikitzeke komunikatu</b>
<p>Gizonezkoak hitza, edo bestelako komunikazio-bide bat hartzen duenean, motibo estrategikoengatik hartzen omen du. Hau da, helburu bat lortzeko. Alderantziz, emakumearen helburua ez da objektu bat, komunikatzen ari den pertsona horrekiko konfiantza eraikitzea baizik. Gizonezkoak linealak, emakumezkoak zirkularrak. Eta nire galdera da: emakumea komunika daiteke, badu komunikatzeko interesik konfiantzarik gabe? Bertso saio estandarretan ez dago konfiantza girorik. Hor zein interes izan dezake emakumeak?</p>	

<b>Eremu publikoa</b>	<b>Eremu pribatua</b>
<p>Milaka urtetan, gizona ere eremu publikoa izan da, eta emakumezkoena pribatua. Azterketek diote, emakumeei esker, eremu publikoa eremu pribatuko abantailaz hornitzen ari dela (eta nik gehituko nioke, “berdintasuna” ulertzeko modu oker bategatik, eremu pribatua eremu publikoko mugez hornitzen ari garela!).</p> <p>Bertsolaritza eremu publikoko jarduna da. Emakumeak sartu direnetik jaso ditu eremu pribatuko abantailatxo batzuk, sentimendu adierazpena, nagusiki.</p>	
<b>Ekintzarako gaitasuna</b>	<b>Motibatzeko gaitasuna</b>
<p>Berez taularen eskuin partea jaso dut ikerketetatik, alegia, emakumeok motibatzeko gaitasuna dugula azpimarratu dut nonbait, eta gero horri aurkajarri diot gizona ere ekintzarako gaitasuna. Badirudi emakumeok hobeak izan garela besteengan sinesteko, eta ondorioz baita besteek ekintza gaitasunetan eta ekintzetan sinesteko, geure buruarengan eta geure ekintzetan sinesteko baino.</p>	
<b>Indibiduala</b>	<b>Taldea babesteko gaitasuna</b>
<p>Hemen ere, nik asmatua da ezkerreko adjektiboa. Emakumeok taldea babesteko gaitasuna dugula irakurri dut, eta horri aurkajarri diot gizona ere indibidualtasuna (ez dut egoismoa adierazi nahi honekin, taldea vs. bakarkako bidea baizik). Erabaki baten aurrean, ezaugarri hau egia bada, emakumeak taldea lehenetsiko du, eta gizona bide indibidualak.</p>	
<b>Hitz egiteko errekurtsio falta (entrenamendu falta)</b>	<b>Beren artean asko hitz egin</b>
<p>Bi ezaugarri hauek lehen aipatutako batekin lotura dute. Ez da bakarrik, emakumeok hitz egiteko gaitasuna garatu dugula, baizik eta gaitasun hori erabili egiten dugula gainera. Gizona ere hitza ez da errekurtsio errekurtekoa, entrenamendu falta dute. Emakumeok ehunka hitz behar ditugu maiz sententzia bat, ideia bat... adierazteko (gizona ere gehiegi?), eta gizona ere aski dute bizpahiru esaldirekin (emakumeontzat gutxiegi?). Amildegia handia da. Hortik sortzen dira pertzepzioak eta jarrerak. Gizona ere badakite ez garela bizpahiru esalditan isilduko, baina beraiek, hirugarren esaldian, esaten ari garenarekiko arreta galduko dute, ezin dute ordu erdiz gure esana garrantzizkotzat jo. Emakumeok, aldiz, maiz, gizona ere komunika gaitzkeenaren esperantza galtzen dugu, eta gerta liteke, batere ez hitz egitea ere, badakigula gure azalpen luzea entzuteko prest ez dagoela pareko gizona.</p> <p>Bertsolaritzaz hitz egiterakoan, hori gertatu ote zaigu? Horregatik horrelako amildegia?</p>	
	<b>Sentimenduz hitz egin</b>
<p>Gizona ere ez dute izan sentimenduz hitz egiteko joera edo gaitasunik. Ekintzei garrantzia handiagoa emateaz gain, hitz bihurtzeko gai ez garen sentimenduak, maiz, izkutuan geratzen dira, sentitzen dituzula, zuzen eragina dutela ez ikusteraino. Emakumeontzako sentimenduen eta sententzien mundua, mundu oso erreala da maiz. Bertso saioretan etengabe aritu gara jira eta buelta geure buruarekin, “nola sentitzen ginen” pentsatuz. Berrero ere amildegia dago bi sexuen artean. Nik uste, beti bezala, oreka dela irtenbidea. Sentimenduak estaltzea ez da osasuntsua, egiten dugunaz gain, sentitzen eta sentiarazten duguna gara. Baina sentimenduekin, sententziekin mundu oso bat eraikitzea ere ez dute uste oso osasuntsua denik, sententziak beti norberarenak baitira, eta maiz norberarenak bakarrik. Bertsolaritzarako, jendaurreko jardunetarako, ezinbestekoa da oreka, eta emakumeok maiz itsutu egin gaituzte sentimenduek, sentimendu horien ondoan estrategiak jartzen ikasi behar genuke.</p>	
	<b>Arazoak hitz bihurtu</b>
<p>Gizona ere, arazoan aurreran ekintzeekin erreakzionatzen dute, edo ez dute erreakzionatzen. Emakumeen lehen erreakzioa arazo hori berbalizatzea da (ondoren batzuetan ekintza egokiek erreakzionatuko du eta bestetan ez hain egokiek). Berbalizatua dagoena ezin da ukatu. Zorionez, Axkixun arazoa hitz bihurtzen hasi ginen... Eta bidetxo egin du.</p>	
<b>Komunikazioak funtzio praktikoa du, zehatza, konkretua</b>	<b>Hitz egitea elkarrekin pentsatzea da</b>
<p>Behin eta berrero ikusten ari gara banaketa honetan, hitzaren erabileraz eta hitzaren balioaz dagoen amildegia bi sexuen artean. Bereizketa honetan esan nahi dena da, emakumeek zerbait esaten dutenean, esaten ari direnaren gaineko erreakzio bila ez direla beti ari, baizik eta esaten</p>	

<p>ari diren hori konpartitza dela garrantzitsua. Gizonezkoentzat hitzak funtzio praktikoagoa du. Adibidez: emakume batek “gaur egun nekagarria izan dut” esaten badu, besterik gabe, informazio hori konpartitu nahi du maiz, ez du parekoaren erreakziorik bilatzen. Gizonak, ordea, hori entzutean, berarengandik erreakzio bat espero dela uste du. Izan ere, berak, nekatuta badago eta aurrekoak ezin badu ezer egin, ez du neke hori komunikatuko. Neke hori komunikatuko du, aurrekoaren erreakzio bat bilatzen duenean.</p>	
<p><b>“KOALITATEAK”:</b> autoritatea, erabaki gaitasuna eta indarra&gt;hizkuntzan reflejatu <b>Galderak erantzungai</b></p>	<p><b>Ez hain zuzena, suabeagoa, geure burua babesteko.</b> <b>Galderak hizketagai</b></p>
<p>Gizonezkoen koalitatetzat jo izan dira autoritatea, erabaki gaitasuna eta indarra. Horri aurkajartzen zaio emakumearen zeharkako estiloa, suabeagoa, eta geure burua babesteko joera. Bi eremuak dira min-sortzaileak hemen ere, bi sexuentzako. Gizonezkoentzat zama galanta dira “koalitate” horiek, eta emakumeak koalitate horiek ez dituenean, ahul gisa ikusten da, bai kanpotik, bai norberak bere burua.</p> <p>Bertsolaritzan urte askoan atakea izan da funtzionatu duena, beraz, estilo maskulinoak abantailak ditu, gizonak entrenatuago daude.</p>	
	<p><b>Atseginak izateko heziak</b> <b>Esperogarria denaren araberako jokaerak izan ditzaten, presio soziala</b></p>
<p>Emakumeok, atseginak izateko izan gara heziak. Ikerketek diote, presio handiagoa dugula, gugandik espero denaren araberako jarrerak, eta ez hortik kanpokoak, izan ditzagun. Honek emakume eredu anitzak mugatzen ditu berriro, eta Iratxe Ibarrak Victoria Eugenia egin zuen salaketara garamatza. Mozkor mota asko daude, horietako asko irudi graziosoarekin lotzen ditugu, baina emakume mozkor bat inoiz ez da grazioso, desagradablea da. Beraz, emakume bertsolari bat mozkor paperean, inkomodoa. Emakumeek, onargarri zaizkien mugetatik kanpo, ez-esaneko gisa jokatzeko badute, nolabait atsegin izaten ez badira, ez dira begi onez hartzen. Sorkuntzarako muga da hori. Esaterako, nekez hartuko dugu egia handiak esaten dituen mozkorren papera.</p>	
<p><b>Irabazi</b></p>	<p><b>Sinestarazi</b></p>
<p>Vencer/convencer binomioa aipatzen dute adituek, alegia, gizezkoek irabazteari ematen diotela garrantzia, emakumezkoek konbentzitzeari, persuaditzeari. Ejem, zer esango dugu txapelketetz? Nork ditu txapelerako aukera handienak?</p>	
<p><b>Urrutiago</b></p>	<p><b>Elkarrengandik hurbilago esertzen dira, elkar begiratzen dute, elkar ukitu</b></p>
<p>Fisikoak ere garrantzia handia du. Gizonek, ia oraintsu arte, harreman fisiko hurbila amarekin, bikotearekin/maitalearekin eta seme-alabekin bakarrik izan dute, eta batzuek ezta horietako bakar batekin ere, okasioak okasio. Emakumeek jarrera hurbilagoa dute, harreman fisikoa ez da hurbiltasun harremanetara bakarrik mugatzen.</p> <p>Bertsolaritzari dagokionez, niri urte askoan oso hotza, arrotza egin zait komunikazio hain razionala, beti gauza “interesgarriez” hitz egiten, liburuez, euskalgintzaz, Elkartez, politikaz... (Eta kirolaz) Fisikoki ere eremu hotza izan da, entzuleak distante, beste bertsolariak ere bai... Orain ohartzen naiz, nik, hurbiltasuna behar dudala eroso egoteko, hurbiltasuna motibatuta egoteko. Entzulearekiko hurbiltasuna, ez hain harreman mentala, bultzatzea eskatzen dit barruak.</p>	
	<p><b>Deskriptiboagoak eta intentsitate gehiago gauzei</b></p>
<p>Ez da kasualitatea, estilo narratiboa garatu duena Maialen izatea, beraz.</p>	

Taula honek, argi uzten du, maiz ezberdinak garela esaten dugunean, zer esan nahi dugun.

Ezberdintasun hauen ondorioz, emakumeak hobeto komunikatzen dira beste emakume batzuekin, eta gizonak beste gizon batzuekin, rol-kodigoak eta linguistikoak konpartitzen

dituztelako. Baina beste sexukoen rol-kodigoak ezagutzea beharrezkoa da, elkar ulertzeko. Eta elkar ulertzea beharrezkoa da, elkar ez zapaltzeko. Enpatiarik ezean, aurrekoa etengabe zapal dezakegu, ito.

Bertsolaritza muga eta giltzarri izan dira nire feminismorako. “Noiz sentitu izan zarete deseroso” galdetu digu Egoitzek, eta ni bertsolari artean, jarreraz, beti sentitu izan naiz deseroso. Baina neure hutsa zela uste nuen, Ainhoarena, norbanakoarena. Ez nituen deserosotasun horiek bi kolektiboren arteko amildegian kokatzen. Nire antzeko izaerarik ez nuen aurkitzen bertsolaritzan, eta besteren izaeretara moldatzera behartzen nuen nire burua, baina arrakasta erdi-purdikoarekin. Umetan, amak, oholtzan “femeninoago” izateko esaten zidan. Nik ordea, femininotasun oro (eta nik bezala nire kantu-lagun ia denek) ezkututzen nuen. Estilo femeninoak ez zuela funtzionatzen bertsolaritzan ohartzen nintzen, modu inkonszientean bazen ere. **Ez ginen mutilak eta ezin genuen neska izan.**

Gaur, taula hau ikusita, sentsazio inkomodo haiei guztiei azalpenak jarrita, nirea ez den eredu bat imitatzeko batere motibaziorik ez dut sentitzen, eta azalpenek, nire ereduari eusteko eta eredu horrekin ez lotsatzeko, ezintasun bezala ez kokatzeko indarra ematen didate, pixkanaka. Ezin duguna egin da, orduan ez genekiena baina orain badakiguna, bertso eskoletan kontuan hartu gabe aurrera egin. Are gehiago, uste dut haurrei txikitatik esatea dagokigula estilo desberdinak daudela aukeran, eta beraiek aukeratu behar dutela gehien gustatzen zaiena.

**-Arrazoikera:** sendoa, ziurra, zapaltzailea vs. sutiltasuna, zalantzia, kolaboraziokoa  
Bertsotan arrazoikera maskulinoa baloratu da, eta niri ez zitzaidan asegarria egiten albokoa zapaltzea. Nolabait, nigan albokoarekiko komunikazioa lehenesteko joera pizten zen, kolaborazio baten beharra.

**-Umorea:** txiste azkarra, “zapaltzailea”.

Umorearen gaia izan da, ni bertsolaritzan deserosoen sentiarazi nauen gaia. Historian zehar, emakumea umorean objektu izan da, ez subjeto (baztertuak, minoriak hala izaten dira). Hartzaile gisa ere, konpostura soziala mantentzeko, ahoa itxita barre egiteko hezi gaituzte. Zergatik egozten zaigu emakumeoi umore falta? Umorea mundu erreferentzialaren araberakoa delako. Virginia Imazen zenbait azalpen:

*Pero la gente adulta debería tener la opción vital de reírse de preocupaciones adultas. Claro que para que cambie el humor han de cambiar los referentes emocionales y culturales.*

(...)

*las emociones, lo doméstico, la crianza, el cuidado de las otras personas y demás referentes culturalmente femeninos son injustamente minusvalorados en relación al tratamiento que reciben las cuestiones públicas como las guerras, las finanzas, la política o el fútbol.*

*Por su puesto, esto dificulta doblemente el acceso de las mujeres a un humor propio. De entrada, tenemos dificultades para aceptar nuestros “referentes” como algo valioso sobre lo que trabajar. Y luego, la sociedad entera no considera lo bastante épico que haya llovido y se te haya mojado la colada ni lo bastante lírico que tu bebé haya sonreído. Y sólo lo verdaderamente trágico puede ser verdaderamente cómico.*

(...)

*Hay tragedia en el ámbito privado, pero si socialmente no se descodifica como tragedia, ya que eso sería darle demasiada importancia, nunca podremos reírnos de ello. Resumiendo, para desdramatizar algo, para quitarle importancia a algo, previamente ese algo tiene que tener importancia.*

(...)

*Luego, la responsabilidad. El mundo del cuidado. En nuestra cultura se asocia la responsabilidad con la seriedad. Esto es un error, porque podrían habernos enseñado a ser responsables con alegría. Por eso hay muchas mujeres que dicen no considerarse graciosas por que se viven a sí mismas como gente hiperresponsable.*



Ibon Arrizabalagak ere esana da, ez dela gauza bera, umetan jolasean ari garelarik, haur bat (panpina) galtzea edo baloi bat galtzea...

Emakumeen jendaurreko umorea sortzeko dago, eta ez dirudi lan erraza denik ere. Horretarako, bertso eskoletan gehiago landu beharko litzateke izaera, bakoitzak bere barrura begiratzea, eta ez hainbeste teknika. Bakoitza beretik abiatu behar du, bere umorea egiteko, klitxe errazak ez errepikatzeke. Gai honetan bada non sakondua.

Virginia Imazek 3 umore mota bereizten ditu: -kaka-kulo-pis (tabuak) / -burua / -erraiak. Gizonek badirudi lehen bietarako joera dutela, emakumeok hirugarrenerakoa. Baina badirudi umorerik zailena ere berau dela. Uste dut gaurko hitzaldiaren zentruetako bat hemen dagoela. Izan ere, umorerik gabeko bertsolaritzak ez luke funtzionatuko (umorerik gabeko bertsolariak ere ez, beraz). Baina klitxe zaharrak deseraikitzea ezinbestekoa da.

#### **-Jolaserako gaitasun eza:**

Inprobisazioak, arriskua eskatzen du. Dena lotua izan nahi duenak, arrakasta ziurtatu nahi duenak, ez du arriskurik hartu nahi izaten. Eta arriskurik hartu ezean, bertso neutro asko irtengo dira.

Emakumeok, baina, perfekzionistagoak gara (Maialenek Oreretan aipatu zituen arrazoiengatik), eta ez diogu geure buruari arriskurik hartzen uzten. Ondorioz, ez dugu jolasten.

Niri gehien sufriarazi didan ezaugarria izan da hau. Autoinportantzia kentzen ez zidaten irakatsi (horretan gizonezkoak askoz hobekak dira), arduratsu izateko hezi ninduten, eta jarrera horrekin ezin da plazetan gozatu (eta ondorioz, ezta gozarazi ere, norbere barne-lotura hori pertzibitzen du publikoak). Gai hau landu beharra dago bertso eskoletan.

#### **-Entzuleak urruti:**

Entzuleen erdiak emakumeak izan arren, entzule horiek ere, bertsolariak bezalaxe, gizonezko entzuleak imitatzen dituzte, haiek hobesten duten bertsokera maitatzen dute, mikromatxismoz jositako txisteekin barre egiten... Publikoa ere ez da maiz izan gure aliatua, gizonezkoena baizik. Guri errukizko animoak baino ez zizkiguten ematen. (Gai honen zabalpenerako, ikus Maialenen Oreretako hitzaldian, emakumeekiko pertzepzioaz egiten dituen gogoetak).

#### **-Gaitegia:**

Pertsonaiek rol femeninoak bazituzten, garatu gabeak izaten ziren maiz, edo oso gutxi garatuak (Egañaren HHko adibidea). Horrek norbere barruko ahots anitzak ateratzea galerazten du, edo/eta okerragoa dena, emakumeen pertsonalitatea norberak erabaki beharra, eta hori karga ideologiko/soziologiko handiegia da, sorkuntzan zentratu ordez, nolako emakumea eraiki nahi duzun pentsatzen galtzen baituzu energia.

Bestalde, gaiak maskulinoak izateak, eta eremu publikoak batipat –eremu pribatuko gaiak berehala bihurtzen dira susmagarri, “emakumeen kontu”, niri behintzat bertsotarako motibazio faltan eragiten zidan, gai horiek ez baitzidaten barrurik mugitzen, eta barrurik mugitu gabe etengabe kantatzea, ez zitzaidan motibagarri. Ez hori bakarrik, maiz nire hitza “alperrikakoa” zela sentitzen nuen.

Deigarria da, gai-jartzaile eta bertsolarien artean saioaren antolaketaz hitz egin denean, formari dagozkion detaileez hitz egin dela maiz, ez dela tematikan sakondu. Gaiaren gaineko Bertsolamintza izan zenean ere 2001ean (?), kasualitatea ote tematikaren arloa Maialenek jorratu izana, eta beste lau gizonezkoak formari buruz aritu izana?

#### **-Transmititzen dudak fragilidadean, ahultasunean...:**

Bertsolaritzan irudi segurua behar dela erakutsi digute, eta zalantza egitea, gauzak badaezpada suabe esatea, galderak egitea, norberak arrazoia izateari baino bestearekin hitz egiteari garrantzia handiagoa ematea.. Ez dira balio positibotzat hartu. Ondorioz, kantulagunek, entzuleek eta

norberak, norbere buruaz ahul inpresioa baino ez dute hartzen, eta adjektibo negatiboen zerrenda sortzen da. Nire fragilidade hori txikitu ordeztu, urteekin handitzen ari zen sentsazioa nuen, gero eta deserosoago sentitzen nintzen, ezaugarri horiek guztiak balio positibotzat hartu ditudan arte, orain gutxi.

#### **-Janzkeran:**

Txorakeria dirudi, baina janzkeran, bertsolaritzak “ez nabarmentzera” bultzatu nau, ez zezatela esan “ez du plazarako balio eta janzkera darabil deigarri bihurtzeko”. Lagun artean gonak, niki estuagoak edo eskoteak erabiltzen hasi ondoren ere, bertso saio baterako propio aukeratzen nuen janzkerarik egokiena... Diskretoena, alegia!

#### **-Ahotsa:**

Bertsolaritzak ahots sendoa eskatzen zuen. Hainbat aretok, kalean kantatzeak... ez zidan erraz jartzen entzuna izatea...

#### **-Eredurik ez, kiderik ez:**

Bertso eskolako kideak asko apreziatu arren, emakume gisa bakarkako ibilbidea zen maiz. Ikusi egin behar zen, Axxixun lehen aldiz bildu ginenean “hori niri ere gertatzen zait”, “nik askotan pentsatu dut hori”, zenbat gauzatan kointziditzen genuen, eta zenbat urte pasatu genituen kiderik gabe...

#### **-Inprobisazioa:**

Gauzak zer diren, inprobisazioa dago bertsoaren oinarrian, baina emakumeok, ahalik eta gutxien inprobisatzeko hezten gaituzte, guk beldurra sentitu baino lehen, helduek gure ausardiarekin zuten beldurra transmititzen ziguten (gizonei baino askoz gehiago), ausart eta aske ez sentitzeko heziketa ongi landua eman ziguten... Horrela ez da erraza arriskatzea, eta bertsoa ongi pentsatzeko denbora gehiago hartzen da, goitik behera lotzeko, bertso txarrari izua zaio...

Orain argi ikusten dut nire ibilbidea zein izan den, zenbat aukera kentzen dituen norberaren balioetatik urrun dagoen eredu bat imitatu nahiak. Honek guztiak ez du esan nahi bertsotan gozatzen ez nuenik (beste hainbeste arrazoi edo gehiagogatik gozatzen nuen, horregatik jarraitu dut egundaino). Baina bai sufritu asko egin izan dudala, eta batez ere, askoz gehiago gozatu eta gozarazi nezakeela, hau guztia norbaitek abisatu izan balit, feminisमतik norbaitek hitz egin izan balit.

#### **4. Nolakoa izango litzateke bertsolaritza, emakumeek garatu izan balute?**

Orain artean bertsolaritza ia absolutuki gizonen garatu dutenez, ez diogu gure buruari bestelako bertsolaritzarik amesteko aukerarik ere eman. Baina niri bertsolaritza hau gustatzen al zait benetan? Bada, gauza batzuetan bai, eta besteetan ez. Esaterako, ez zaizkit batere gustatzen frontoietako saioak, kantatzeko behintzat. Nahiago ditut antzokiak. Ez ote du honek generoarekin zerikusirik? Zergatik bilatzen dut intimitatea bertsotan, ereduak ez badira batere intimoak?

Galdera asko sor daitezke. Nire proposamena da, historiak buruan txertatu digun informazioa desprogramatzen ikasi behar dugula, gizonak, orain arteko gizonen ereduak imitatzeari utzi eta geure neurriko bertsolaritza sortzeko. Izaeren araberakoa, norberaren gustukoa. Esaterako, eta hipotesi gisa, esango nuke honako ezaugarriok izango lituzkeela bertsolaritzak, emakumeek garatu izan balute –niri barruak halakoxea eskatzen dit, eta emakumea naiz. Pentsatzen dut hainbat emakumek konpartituko duela ikuspegi honen zati handi bat:-

**-Intimoagoa**, espazioz eta ahotsez.

·Espazioei dagokionez, agian saio estandarrak ez lirateke izango oholtza baten gainetik, 400 laguni kantatzeko saioak. Agian ez zen oholtzarik egongo, agian entzulea bertsolarien inguruan bilduko zen... Bestelako eszenatokiak imajinatzen ditut, hurbilagoak, goxoagoak, borobilagoak.

·Ahots tonalitateak lotura zuzena du espazio antolaketarekin. Ahots goxoak, ahots landuagoak, kantaera pertsonalagoak irudikatzen ditut, bakoitzaren izaerarekin bat egiten dutenak, bertsolari bat ironikoa, pentsalaria edo sentimental den adierazten digutenak.

-**Bestelako gaitegia.** Bertsotan esparru publikoko gai ez egin izan da ia beti, eta esparru pribatuko gaiak edo drama ziren, edo garrantzia guztia deusezten zitzairen beraien gaineko txiste errazekin. Orain esparru publikoko gaiak dauden bezain garatuta egongo lirateke esparru pribatukoak.

-**Gorputz espresioa.** Giro hurbilean, gorputzaren laguntza erraz irudika daiteke, bai mugimenduan –leku batetik bestera mugituz-, bai adierazpenean –keinu txikiak, aurpegiarekin, eskuekin... testua lagunduz-. Begiradak ere garrantzia hartuko lukeela uste dut: publikoari begiratu ordez, bertsolariek elkarri begira kantatuko luketela gehiago, elkar ukituz agian, eta publikoa hurbileko konplizea izango litzatekeela.

-**Doinutegia,** espazioaren araberakoa. Landuagoa kantaera, doinuen matizak, ez ausazko doinu-hautaketa, gaiaren araberakoa baizik, errepikadun doinurik ez (azken arrazoi fuertea indartzeko funtzioa dutenak), iradokitzaileagoak...

-**Gai-jartzaileari** dagokionez, ez nago seguru gai-jartzailerik izango ote zen, edo gai-jartzaile lanak bertsolariek konpartituko lituzketen, edo publikoak beteko, edo gai-jartzaileak bertsolariekin tematika bat adostuko lukeen... Hainbat paperetan kantatu beharreko saioak ez ditut imajinatzen, tematika aldetik zentratuagoak, baizik, monografikoak, eta abar.

-**Txapelketak:** kostatzen zait emakumez betetako txapelketak imajinatzea.

-**Elitea** ere, agian ez litzateke hain elite nabarmenik, edo imajinatzen dut bertsolaririk ibilienek ez hain ibilienekin txertatuta egingo lituzketela saioak.

-**Bertsokera:** iradokitzaileagoa, sutilagoa, galdera gehiago eta erantzun gutxiagoduna, ez hain efektista...

Hau guztia ikusita, lehen aldiz ageri zait begien aurrean, emakume izatea ez dela bertsotarako traba, muga, ezin, beldur-iturri... baizik eta aukera, emankortasunez betetako aukera! Orain artean lotura negatiboa izan da emakumea eta bertsolaritzarena, bertsolaritza modu bakarrean interpretatzen zelako, gizonetzkoek garatutako bertsolaritzak uzten zuen espazioaren barruan. Baina bertsoa ahozko inprobisazio kantatua da, hor ez dago bestelako definiziorik, orain artean sozialki garatu den bertsolaritza ez da dagoen bertsolaritza-eredu bakarra. Beraz, emakume izatea ez da muga, aukera da. Askotan gauzak beste era batera egiteko, sentitzeko, bideratzeko joera dugu emakumeok, eta emakume izatea, eta gizon izatea inguruan emakume asko izanik, edo emakumeen ereduak ere bere espazioa izanik, modu horiek lantzeko aukera izan daiteke.

Aukera horiek lantzeko, espazio propioak behar dira. Bi, hiru, lau... emakumez osatutako saioak, giro intimoagoak, lehiatik urruti, emakumezko gai-jartzaileak...

Gisa honetako saioak, nire ustez, beharrezkoak dira bai egun bertsoan ari diren emakumezko bertsolariak oraindik oso gazteak direlako (35 urtetik beherakoak denak), estiloak aldatzeko ez delako berandu eta jendurrean bertsoan jarrai dezaten izan daitekeen egiazko motibazio bakarra izan daitekeelako (bestela gehienek poliki-poliki jendurreko saioak uzteko arriskua, arriskua baino askoz ere gehiago da). Eta bestalde, orain bertso eskoletan dauden hurrek, orotariko ereduak izan ditzaten, guk oharkabean egin dugun bide luzea berriro oharkabean egin ez dezaten. Belaunaldi berriengan eragina izateko, ordea, horrelako saioak egiten direnetan, gizonetzkoen, antolatzaileen, Bertsozale Elkartearen babes (ez hitzezkoa, presentziala eta gozamenetzkoa baizik) beharrezkoa da, bestela ez baitira saio “seriotzat” hartuko, eta orain arteko ereduak gailenduko zaio nabarmen, hauek “saio anekdotiko” bihurtuz.

Puntu honen gainean, ohar bat: emakumeak eta emakumeak daude. Adituek diote, aldaketek eragina izateko, bere emakumetasunaz kontzientzia duten emakumeen sorkuntzalanak behar direla, ikuspegi feminista duten lanak. Hori gabekoez, eredu zaharrak denboran luzatzeko baino ez dutela balio. Bertsolari, gai-jartzaile eta antolatzaileen esparru osoa hartzen du honek.

Emakumezkoek garatutako balizko bertsolaritza irudikatzean, aspektu bat aipatu gabe utzi dut:

-Hedapena. Seguruenik ez zuen lortuko, ez behintzat egun ezagutzen dugun gizartean (hemen ez nuke “jendartean” esango), gizonetzkoek garatu duten bertsolaritza sonaren laurdenik ere. Arrakasta eta sona balio maskulinoetatik bideratutako bi fenomeno dira egun. Jardun txikiagoa (minorizatuagoa?) izango litzateke. Daukagun gizarte-eredua daukagulako, noski. Balia dezagun une honetan bertsolaritza dituen indarra eta prestigioa, aldaketak –edo gutxienez ekarpenak– egin ahal izateko. Onarpen maila handia duen kultur-jarduera izanik, une ona da ikuspegi berriak txertatzeko.

Konplexuz bete gaituzte, eta halaxe elikatzen jarraitu dugu guk ere gure burua. Sendagarri bakarra mundu-ikuskera hori sakonetik begiratzea da, eta feminismoak bakarrik lagunduko digu emakumeoi, geure burua feminismotik eraikitzeak.

Aldi berean, ez da gaurko nire gaia izan, baina badira Euskal Herrian gizonetzkoen zapalkuntza aztertzen dutenak ere, gizonaren emakumeez eta bere buruarekiko zapaltzaile rola deseraikitzen saiatzen direnak. Nik Ibon Arrizabalaga eta Xabier Odriozola ezagutzen ditut. Zuek ere zeuen burua hortik eraikitzea gomendatzen dizuet.

Amaitzeko, mila esker guztioi, eta bereziki hainbat urtean feminismoan militatu eta gogoeta egin duzuenoi, zuen lanari esker ari gara gure burua hobeto ezagutzen eta ezarritako rola deseraikitzen. Mila esker benetan!

---